

<b>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK, 2016KO MARTXOAREN 22AN LEHENENGO DEIALDIAN, EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</b>	<b>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 22 DE MARZO DE 2016.</b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>	<b><u>ASISTENTES</u></b>
<b><u>LEHENDAKARIA</u></b>	<b><u>PRESIDENTE</u></b>

Imanol Landa Jauregi jn.

<b><u>BATZARKIDEAK</u></b>	<b><u>VOCALÉS</u></b>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Jose Luis Landa Arteche Jn.

<b><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></b>	<b><u>SECRETARIO GENERAL</u></b>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxo Udaletxean, bi mila eta hamaseiko martxoaren hogeita bian, Imanol Landa Jauregi alkate jauna bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotziez gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

Alkateak, legeak eskatzen duen kidekopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a veintidós de marzo de dos mil dieciséis, y bajo la presidencia del Sr. Alcalde, don Imanol Landa Jauregi, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

El Sr. Alcalde, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**91.- 2016KO MARTXOAREN 15EAN  
EGINDAKO OHIKO BILERAKO  
AKTA ONESTEIA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2016ko martxoaren 15eko bilerakoa, hain zuzen.

**OGASUNA, KONTUAK,  
EKONOMIA SUSTAPENA, GIZA  
BALIABIDEAK, GAZTERIA ETA  
EUSKARA**

**92.- SUBKONTRATAZIOAREN  
BERRI EMATEA, GETXOKO HERRI-  
IKASTETXEETAN BERTSOLARITZA  
IRAKASTEKO ZERBITZUA ESLEITU  
IZAN ZAIONAK EGINDAKOAN.**

**93.- ERAIKUNTZA-MATERIALEN  
HORNIKETA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA.- NAHIKARI AYO ACEBO andreak, 16.072.274-N NAN zenbakidunak, GETXOKO IKASTETXEETAN BERTSOLARITZA ESKOLAK EMATEKO ZERBITZUAREN adjudikazioduna denak, egin duen azpikontratazioari buruzko jakinarazpenaren jakitun geratzea.

BIGARRENA.- Azpikontratazio honek ez du inola ere ekarriko udalaren eta azpikontratatistaren artean inolako obligazio izaerako harreman juridikorik sortzea; beraz, azken horrek ezin izango du udalarengana jo kontratistak berarekin dauzkan betebeharrak erreklamatzeko.

**91.- APROBACIÓN DEL ACTA DE  
LA ANTERIOR SESIÓN  
ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA  
15 DE MARZO DE 2016.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 15 de marzo de 2016.

**HACIENDA, CUENTAS,  
PROMOCIÓN ECONÓMICA,  
RECURSOS HUMANOS, JUVENTUD  
Y EUSKERA**

**92.- DACIÓN DE CUENTA DE LA  
SUBCONTRATACIÓN EFECTUADA  
POR LA ADJUDICATARIA DEL  
SERVICIO DE IMPARTICIÓN DE  
CLASES DE BERTSOLARITZA EN  
LOS CENTROS ESCOLARES DE  
GETXO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO.- Quedar enterados de la comunicación de subcontratación efectuada por D<sup>a</sup> NAHIKARI AYO ACEBO, con DNI número la 16.072.274-N, actual adjudicataria del SERVICIO DE IMPARTICIÓN DE CLASES DE BERTSOLARITZA EN LOS CENTROS ESCOLARES DE GETXO.

SEGUNDO.- Esta subcontratación no implicará, en ningún caso, la existencia de una relación jurídica obligacional entre el Ayuntamiento y el subcontratista, de manera que este último no podrá dirigirse al Ayuntamiento en reclamación de obligaciones que le adeude el

contratista.

**93.- ERAIKUNTZA-MATERIALEN  
HORNIKETA LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: URTEBETEZ (lehenengo luzapena) luzatuko da, 2016-06-01etik 2017-05-31ra, JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL jaunarekin (NAN: 16.037.920-C) sinatutako kontratuaren indarraldia, ERAIKUNTZAKO MATERIALEN HORNIDURA egiteko, bere eskaintza ekonomikoan jasotako unitateko prezioetan, eta urteko 45.000 euroko gehieneko aurrekontuan, BEZaren % 21 barne (37.190,08 € gehi BEZaren % 21 dagozkion 7.809,92 €).

BIGARRENA: Luzapen horri aurre egiteko behar den gastua baimentzea eta agintzea: 37.190,08.-euro, gehi 7.809,92.-euro (% 21, BEZari dagokiona).

**94.- "LA TERRAZA" DERITZAN  
UDAL ERAIKINA EDANTEGI GISA  
USTIATZEKO KONTRATUA  
LUZATZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: 2016-07-15etik 2017-07-14ra luzatuko da (lehenengo luzapena) "SARENE XXI, S.L.-PUNTUAN KONSULTING, S.L, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS,

**93.- PRÓRROGA DEL SUMINISTRO  
DE MATERIALES DE  
CONSTRUCCIÓN.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar durante UN AÑO (primera prórroga), desde el 01/06/2016 al 31/05/2017, la vigencia del contrato suscrito con D. JOSÉ RAMÓN YANGUAS CARRASCAL con DNI: 16.037.920-C, del SUMINISTRO DE MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN por los precios unitarios recogidos en su oferta económica y por un presupuesto máximo anual de 45.000 euros anuales, 21% de I.V.A. incluido (37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 37.190,08.-€ más 7.809,92.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la citada prórroga.

**94.- PRÓRROGA DEL CONTRATO  
PARA LA EXPLOTACIÓN DEL  
EDIFICIO MUNICIPAL "LA  
TERRAZA", DESTINADO A BAR.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Prorrogar desde el 15/07/2016 al 14/07/2017 (primera prórroga), la vigencia del contrato suscrito con la UTE denominada "SARENE XXI, S.L.- PUNTUAN

LEY 18/1982" deritzon EABarekin, laburrean "U.T.E. explotación La Terraza", U95772489 IFK, "LA TERRAZA" IZENEKO UDAL ERAIKINAREN USTIAPENERAKO sinatutako kontratuaren indarraldia, urteko kanon honen truke: 183.600.-euro gehi 38.556 euro (BEZaren % 21a).

KONSULTING, S.L, UNIÓN TEMPORAL DE EMPRESAS, LEY 18/1982", en anagrama "U.T.E. explotación La Terraza", con C.I.F. U95772489 para la EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "LA TERRAZA" por un canon anual de 183.600.-euros mas 38.556 euros correspondientes al 21% de I.V.A.

BIGARRENA: Ez da behar kreditu egoki eta nahikorik kontratu hori luzatzetik eratorzen diren gastuei aurre egiteko, espediente honek ez baitakar gasturik udal kutxentzat.

SEGUNDO: No se requiere crédito adecuado y suficiente para hacer frente a los gastos derivados de prorrogar el citado contrato dado que el presente expediente no conlleva gasto para las arcas municipales.

**95.- UDAL ERAIKINAK  
ARTATZEKO MARGOAREN  
HORNIKETAKO KONTRATUKO  
PREZIOAK BERRIKUSITA  
ONESTE.**

**95.- APROBACIÓN DE LA  
REVISIÓN DE PRECIOS DEL  
SUMINISTRO DE PINTURA PARA  
EL MANTENIMIENTO DE LOS  
EDIFICIOS MUNICIPALES.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

LEHENENGOA: PINTURAS Y RECUBRIMIENTOS URSAN, S.L. sozietateari (IFK: B48473987) prezioen berrikuspena onestea 2015-05-27tik aurrera GETXOKO UDALAREN ERAIKINAK MANTENTZEKO PINTURAK HORNITZEKO, % 0,0ko igoeraren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko maiatzetik 2015eko maiatzera arte izandako aldakuntzaren % 0,0aren % 85, hain zuzen ere). Lizitatzailleak bere proposamen ekonomikoan proposatutako aleko prezioei aplikatuko zaie aipatutako % 0,0ko gehikuntza. Halere, hornidura horretarako urteko zenbateko eguneratua honako hau izango da:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social PINTURAS Y RECUBRIMIENTOS URSAN, S.L. con C.I.F.: B48473987 a partir del día 27/05/2015 para el SUMINISTRO DE PINTURA PARA EL MANTENIMIENTO DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES DE GETXO, de acuerdo con el incremento del 0% (correspondiente al 85% de 00% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de mayo de 2014 al mes de mayo de 2015). El citado incremento del 0,0% se aplicará a los precios unitarios que el licitador propuesto en su oferta económica, si bien el importe máximo anual actualizado para este suministro

16.067,07 € gehi BEZaren % 21ari dagozkion 3.374,09 €.

BIGARRENA: Ez da beharrezkoa inolako gasturik baimentzea eta xedatzea, 2015-05-27tik 2016-05-26ra, onetsitako prezioen gehikuntza zero izan baita.

**96.- GETXOKO UDALERRIKO DESINFEKZIO, DESINTSEKTAZIO ETA ARRATOIAK AMAITZEKO ZERBITZUAREN PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A. sozietateari (IFK: A-82850611) prezioen berrikuspena onestea 2014-10-31tik aurrera DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK ETA ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUA emateko, % 0,17ko igoeraren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2013ko urritik 2014ko urrira izandako aldakuntzaren % 0,2aren % 85, hain zuzen ere). Hala, zerbitzu horretarako urteko eguneratutako zenbatekoa 18.878,34 eurokoa izango da (BEZa barne), eta honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 14.837,18.-€ gehi 1.483,72.-€ (BEZaren % 10).

- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 2.113,59.-€ gehi 443,85.-€ (BEZaren % 21).

BIGARRENA: Anticimex 3D Sanidad

será de 16.067,07.-euros anuales más 3.374,09.-euros correspondientes al 21% de I.V.A.

SEGUNDO: No es necesario autorizar y disponer gasto alguno puesto que el incremento de precios aprobado para el período del 27/05/2015 al 26/05/2016 es cero.

**96.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A.", con C.I.F A-82850611 a partir del día 31/10/2014 para el SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN de acuerdo con el incremento del 0,17% (correspondiente al 85% de 0,2 variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2013 al mes de octubre de 2014) resultando un importe anual actualizado para este servicio de 18.878,34.-euros I.V.A. Incluido, que se desglosa de la siguiente manera:

- Por el Servicio de desratización: 14.837,18.-€, más 1.483,72.-€ correspondientes al 10% del I.V.A.

- Servicio de desinfección y desinsectación: 2.113,59.-€, más 443,85.-€ correspondientes al 21% del I.V.A.

SEGUNDO: Aprobar la revisión de

Ambiental, S.A. sozietateari (IFK: A-82850611) prezioen berrikuspena onestea 2015-10-31tik aurrera DESINFEKTATZEKO, ETA INTSEKTUAK ETA ARRATOIAK HILTZEKO ZERBITZUA emateko, -% 0,34ko murrizketaren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko urritik 2015ko urrira izandako aldakuntzaren -% 0,4aren % 85, hain zuzen ere). Hala, zerbitzu horretarako urteko eguneratutako zenbatekoa 18.814,14 eurokoa izango da (BEZa barne), eta honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 14.786,73.-€ gehi 1.478,67.-€ (BEZaren % 10).
- Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 2.106,40.-€ gehi 442,34.-€ (BEZaren % 21).

HIRUGARRENA: Behar den gastua baimentzea eta xedatzea, 32,04 eurokoa (BEZaren % 10 eta % 21 barne), 2014 10 31tik 2015 10 30era bitarteko prezioen berrikuspenari aurre egiteko. Honela banakatuko da:

- Arratoiak hiltzeko zerbitzua: 25,18.-€ gehi 2,52.-€ (BEZaren % 10).
  - Desinfekziorako eta intsektuak hiltzeko zerbitzua: 3,59.-€ gehi 0,75.-€ (BEZaren % 21).
- Halaber, behar den gastua baimentzen eta xedatzen da, 64,08 eurokoa, 2015 10 31tik 2017-10-30era bitarteko kontratutik gelditzen den aldiko 2014ko berrikuspenari dagokiona.

LAUGARRENA: 2015-10-31tik 2016 10-30era onartutako prezioen beheranzko berrikuspenak xedatutako eta

precios a la razón social "Anticimex 3D Sanidad Ambiental, S.A.", con C.I.F A-82850611 a partir del día 31/10/2015 para el SERVICIO DE DESRATIZACIÓN, DESINFECCIÓN Y DESINSECTACIÓN de acuerdo con la reducción del -0,34% (correspondiente al 85% de -0,4% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de octubre de 2014 al mes de octubre de 2015), resultando un importe anual actualizado para este servicio de 18.814,14.-euros I.V.A. Incluido, que se desglosa de la siguiente manera:

- Por el Servicio de desratización: 14.786,73.-€, más 1.478,67.-€ correspondientes al 10% del I.V.A.
- Servicio de desinfección y desinsectación: 2.106,40.-€, más 442,34.-€ correspondientes al 21% del I.V.A.

TERCERO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 32,04.-€, (I.V.A. del 10% y 21% incluido), para hacer frente a la revisión de precios del 31/10/2014 al 30/10/2015, conforme al siguiente desglose:

- Servicio de desratización: 25,18.-euros más 2,52.-euros correspondiente al 10% de I.V.A.
  - Servicio de desinfección y desinsectación: 3,59.-euros más 0,75.-euros correspondiente al 21% de I.V.A.
- Así mismo, se autoriza y dispone el gasto necesario por importe de 64,08.-euros relativo al efecto de la revisión 2014 en el período que resta del contrato del 31/10/2015 al 30/10/2017.

CUARTO: La revisión de precios a la baja aprobada desde el 31/10/2015 hasta el 30/10/2016 implica una

baimendutako gastuan murrizketa dakar, 64,19 eurokoa, % 21eko BEZa barne.

Halaber, behar den gastuaren murrizketa baimentzen eta xedatzen da, 64,19 eurokoa, 2016-10-31tik 2016 10-31ra bitarteko kontratutik gelditzen den aldiko 2015eko berrikuspenari dagokiona.

**97.- KOMUNIKAZIO, JAI ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO UDAL ARLOETAKO ETA EUSKARA ZERBITZUKO LANAK GARATZEARREN BEHARREKO AZPIEGITURAKO ZERBITZUEN PREZIOAK BERRIKUSITA ONESTEIA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: AZ - ANTOLAKETA ETA ZERBITZUAK, S.L. sozietateari (IFK: B-48714898) prezioen berrikuspena onestea 2015-06-05etik aurrera KOMUNIKAZIO, JAI, GIZARTE-ZERBITZUEN ARLOKO ETA EUSKARA-ZERBITZUKO LANAK EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN AZPIEGITURA-ZERBITZUETARAKO, % 0,0ko igoeraren arabera (KPIak Euskal Autonomia Erkidegoan 2014ko maiatzetik 2015eko maiatzera arte izandako aldakuntzaren % 0,0aren % 85, hain zuzen ere). % 0,0ko gehikuntza hori lizitatuzaileak bere eskaintza ekonomikoan aurkeztu zituen aleko prezioetan aplikatuko da, urtean 29.900.- euroko gehieneko zenbateraino, BEZaren % 21 barne.

minoración en el gasto dispuesto y autorizado en un importe de 64,19.-€ 21% I.V.A. incluido.

Así mismo, se minora el gasto dispuesto y autorizado por importe de 64,19.-euros relativo al efecto de la revisión 2015 en el período que resta del contrato del 31/10/2016 al 30/10/2017.

**97.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE INFRAESTRUCTURA NECESARIA PARA EL DESARROLLO DE LOS TRABAJOS DEL ÁREA DE COMUNICACIÓN, FIESTAS, SERVICIOS SOCIALES Y SERVICIO DE EUSKERA.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la razón social AZ - ANTOLAKETA ETA ZERBITZUAK, S.L., con CIF B-48714898 a partir del día 05/06/2015 para los SERVICIOS DE INFRAESTRUCTURA NECESARIOS PARA EL DESARROLLO DE LOS TRABAJOS DEL ÁREA DE COMUNICACIÓN, FIESTAS, SERVICIOS SOCIALES Y SERVICIO DE EUSKERA, de acuerdo con el incremento del 0% (correspondiente al 85% de 00% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de mayo de 2014 al mes de mayo de 2015). El citado incremento del 0,0% se aplicará a los precios unitarios que el licitador presentó en su oferta económica, hasta un importe máximo de 29.900.-€ anuales, IVA del 21% incluido.

BIGARRENA: Ez da beharrezkoa inolako gasturik baimentzea eta xedatzea, 2015-06-05etik 2016-06-04ra, onetsitako prezioen gehikuntza zero izan baita.

**98.- PUNTA BEGOÑA GALERIETAN KANPOALDEKO IGOGAILUA EZARTZEKO KONTRATU MISTOA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA HASI, BALDINTZA-AGIRIAK ONETSI ETA GASTUA EGITEA BAIMENTZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: Punta Begoña galerietan kanpo igogailu bat jartzeko kontratu mistoa (obra+hornidura) prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko baimena ematea.

Kontratuaren prezioa, gehienez, 50.000 eurokoa izango da (BEZaren % 21a barne). Zenbateko hori lizitatzailleek hobetu ahalko dute eskaintza ekonomikoan, kontratuak iraungo duen HIRU (3) HILABETERAKO, kontratua sinatzen den egunetik aurrera. Ezin da luzapenik egin.

BIGARRENA: Administrazioa agindu behar duten administrazio baldintza zehatzen eta baldintza teknikoek onestea.

HIRUGARRENA: Obra, prozedura irekian, adjudikatzeko arauzko izapidea hasteko baimena ematea.

LAUGARRENA: Punta Begoña

SEGUNDO: No es necesario autorizar y disponer gasto alguno puesto que el incremento de precios aprobado para el período del 05/06/2015 al 04/06/2016 es cero.

**98.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO MIXTO PARA LA INSTALACIÓN DE UN ASCENSOR EXTERIOR EN LAS GALERÍAS PUNTA BEGOÑA, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se acordó:

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, contrato mixto (obra+suministro) para la instalación de un ascensor exterior en las galerías Punta Begoña.

El precio máximo del contrato será de 50.000euros, (I.V.A 21% incluido), cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en su oferta económica, para los TRES (3) MESES de duración del contrato, contados a partir de la fecha de la firma del contrato, sin que pueda ser susceptible de prórrogas.

SEGUNDO: Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

TERCERO: Autorizar el inicio de tramitación reglamentaria para la adjudicación, por el procedimiento Abierto, de la obra.

CUARTO: Autorizar el gasto necesario



galerietan kanpo igogailu bat jartzeko kontratu mistoa (obra + hornidura) kontratatetik eratorritako betebeharrei aurre egiteko behar den gastua baimentzea, 50.000 eurotan.

para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del contrato mixto (obra + suministro) para la instalación de un ascensor exterior en las galerías Punta Begoña, por importe de 50.000, euro.

**99.- UDALERRIKO ESPARRU  
ESTRATEGIKOAK EKONOMIA  
ALDETIK SUSTATZEKO  
PLANAREN BARNEKO BIURTEKO  
EKINTZA-PLANAK TAXUTZEKO  
ETA EZARTZEKO ZERBITZUA 2016-  
2020 BITARTERAKO ESLEITZEA.**

**99.- ADJUDICACIÓN DEL  
SERVICIO DE DISEÑO E  
IMPLANTACIÓN DE LOS PLANES  
OPERATIVOS BIANUALES DEL  
PLAN DE PROMOCIÓN  
ECONÓMICA DE LOS ÁMBITOS  
ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO  
(2016-2020).**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Contratación, Sistemas de Información y Deportes, se decidió aprobar la siguiente propuesta de acuerdo:

**AURREKARIAK**  
**LEHENENGOA.-** Tokiko Gobernu Batzarrak 2015-12-09an hartutako 459. erabakiaren bidez 2016-2020 GETXOKO UDALERRIKO ARLO ESTRATEGIKOEN EKONOMIA-SUSTAPENEN PLANAREN BIURTEKO PLAN OPERATIBOAK PRESTATU NAHIZ EZARTZEKO ETA BIURTEKO LEHENENGO PLANA EZARTZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bidez adjudikatzeko arauzko izapideen hasiera baimendu zen. Kontratuaren prezioa 28.000 euro izango da, BEZaren % 21 barne, eta zenbateko hori lizitzaileek hobetu ahal izango dute euren eskaintza ekonomikoetan.

**ANTECEDENTES DE HECHO**  
**PRIMERO.-** Por acuerdo nº 459 adoptado por Junta de Gobierno Local celebrada en fecha 09/12/2015, se autorizó el inicio de la tramitación reglamentaria para la celebración, mediante el PROCEDIMIENTO ABIERTO, del SERVICIO DE DISEÑO E IMPLANTACIÓN DE LOS PLANES OPERATIVOS BIANUALES DEL PLAN DE PROMOCIÓN ECONÓMICA DE LOS ÁMBITOS ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO DE GETXO 2016-2020 E IMPLANTACIÓN DEL PRIMER PLAN BIANUAL. El precio del contrato será de 28.000.- euros, 21% de I.V.A. incluido, cantidad que podrá ser mejorada por los licitadores en sus ofertas económicas.

Kontratuak URTEBETE iraungo du, administrazioko kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita, eta urtebeteko luzapen bat izan ahalko

La duración del contrato será de UN AÑO, contado desde la formalización del contrato administrativo, siendo susceptible de una prórroga de un año

du; nolana ere, kontratuak ezingo du, guztira, 2 (BI) URTE baino gehiago iraun. Nolan ere, kontratua ez da hasiko 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen. Luzapenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 23. artikulua xedatutakoa beteko du, kontratazio organoak berariaz adostuko du eta adjudikaziodunarentzat nahitaezkoa izango da.

Kontratu hori 2016ko ekitaldian kreditu egokia eta behar bestekoa egotearen mende geratuko da.

BIGARRENA: 2015-12-29an lizitazio iragarkia argitaratu zen 249 zenbakiko BAOn.

HIRUGARRENA.- 2016-01-14an, kontratazio publikoaren arloan indarrean dagoen araudia eta aplikaziorako udal-xedapenak betez, eta espedientearen administrazio klausula zehatzen pleguetan jasotakoaren arabera, erreferentziazko kontratua adjudikatzeko, aurkeztutako proposamenen dokumentazio orokorra zeukaten gutun-azalak ireki ziren jendaurrean, Getxoko Udaleko Kontratazio Zerbitzuaren Bulegoetan. Lizitaziora bi enpresek aurkeztu zituzten proposamenak:

- 1.- LKS, S. COOP.
- 2.- INFORMACIÓN Y DESARROLLO, S.L.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertuta, aurkeztutako bi proposamenak onartu ziren. Jarraian, eta Administrazio Klausulen Pleguko 20. klausulan jasotakoaren arabera, aurkeztutako eskaintzen AUTOMATIKOKI EBALUATU

de duración, sin que la duración total del contrato exceda de los 2 (DOS) AÑOS. En cualquier caso el contrato no dará comienzo antes del 1 de enero de 2016. La prórroga se acomodará a lo dispuesto en el artículo 23 TRLCSP, acordándose de forma expresa por el órgano de Contratación y siendo obligatoria para el adjudicatario.

La celebración de dicho contrato queda supeditada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el ejercicio 2016.

SEGUNDO.- Con fecha 29/12/2015 se publica el anuncio de licitación en el BOB número 249.

TERCERO.- Con fecha 14/01/2016, en cumplimiento de la normativa vigente en materia de contratación pública, así como de las disposiciones municipales que resultan de aplicación, según lo contemplado en los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares del expediente para la adjudicación del contrato de referencia, se procede, en las Dependencias del Servicio de Contratación del Ayuntamiento de Getxo, a la Apertura, en acto público, de los sobres que contenían la Documentación General de las proposiciones presentadas. Las empresas que presentaron proposiciones a la licitación fueron dos:

- 1.- LKS, S. COOP.
- 2.- INFORMACIÓN Y DESARROLLO, S.L.

Examinada la documentación presentada se admitieron las dos propuestas presentadas. A continuación y de conformidad con lo dispuesto en la cláusula 20 del Pliego de Cláusulas Administrativas se

EZIN DIREN IRIZPIDEAK jasotzen zituzten gutun-azalak zabaldu ziren, emaitza honekin:

procedió a la apertura de los sobres que contenían los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA NO AUTOMÁTICA de las ofertas presentadas con el siguiente resultado:

<u>ENPRESA</u> <u>EMPRESA</u>	<u>AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA</u> <u>DOCUMENTACIÓN PRESENTADA</u>
1.- LKS S. COOP.	PROPOSAMEN TEKNIKOA (zerbitzu eredua, koordinazioa, baliabide naturalak eta giza baliabideak) PROPUESTA TÉCNICA (Modelo de servicio, coordinación, recurso materiales y humanos)
2.- INFORMACION Y DESARROLLO S.L.	PROPOSAMEN TEKNIKOA (zerbitzu eredua, koordinazioa, baliabide naturalak eta giza baliabideak) PROPUESTA TÉCNICA (Modelo de servicio, coordinación, recurso materiales y humanos)

Gero, eta lizitazioa eraentzen duten pleguekin bat etorritz, aurkeztutako dokumentazioa foliotan banatu eta zenbakitu zen eta aurkeztutako eskaintzak GETXOLANera bidali ziren, dagokion balorazioa egiteko.

Seguidamente, de conformidad con los pliegos que rigen la licitación, se procedió a foliar y numerar la documentación presentada y se remitieron las ofertas presentadas al GETXOLAN, a fin de que realizase la valoración pertinente.

LAUGARRENA.- GETXOLANeko teknikariak txostena igorri zuen 2016-01-22an, automatikoki ebalua ezin daitezkeen irizpideei buruzkoa.

CUARTO.- Por el Técnico correspondiente de GETXOLAN se emitió informe con fecha 22/01/2016 sobre los criterios evaluables de forma no automática.

BOSGARRENA.- 2016-02-05eko Kontratazio Mahaiak ekonomia sustapeneko teknikariak 2016-01-22an egindako txostena aztertu eta onartu du; aipatutako prozeduran automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruzko txostena da. Ondorioz, INFYDE (Información y Desarrollo, S.L.) enpresa baztertea proposatu da, ez datorrelako bat behar den kontratu-xedearekin, aipatutako txosten teknikoan azaltzen diren arrazoiak direla bide. Aurkeztu den

QUINTO.- Por los miembros de la Mesa de Contratación, de fecha 05/02/2016, es analizado y asumido el informe emitido por el Técnico de Promoción Económica, de fecha 22.01.2016, sobre los criterios evaluables de forma no automática en el procedimiento de referencia. En consecuencia, se propuso la exclusión de la empresa INFYDE (Información y Desarrollo, S.L.) al considerar que no se correspondía con el objeto contractual pretendido por las razones que en el citado informe

beste enpresari dagokionez, LKS, egindako balorazio teknikoa asumitzen da era berean. Hauxe da:

técnico se señalan. En cuanto a la otra empresa presentada LKS, se asumió igualmente la valoración técnica realizada, y que a continuación se recoge:

LKS		
IRIZPIDE EZ AUTOMATIKOAK CRITERIOS NO AUTOMÁTICOS	GEHIENEO P. P. MÁXIMA	LORTUTAKO P. P. OBTENIDA
Egin beharreko lanen proposamena: Zerbitzu eredua Propuesta de tareas a desarrollar: Modelo de servicio		
Diseinuko proposamena eta plan operatiboan antolaketa Propuesta de Diseño y Organización Planes Operativos	8	8
Kudeaketa eredua eta lan plana Modelo de gestión y Plan de Trabajo	8	8
Saioen metodologia eta antolaketa Metodología y organización de las sesiones	3	3
Lansaioen kop. Nº de sesiones de trabajo	3	3
Jarraipen eta ebaluazio sistema Sistema de seguimiento y evaluación	3	3
Komunikazio Plana diseinatzeko eta egikaritzeko proposamena Propuesta de diseño y ejecución del Plan de Comunicación	3	3
2020ko Plan Estrategikoa ebaluatu eta eguneratzeko proposamena Propuesta de evaluación y actualización del Plan Estratégico 2020	3	3
Koordinazioa Coordinación		
Koordinazio txostenen proposamena Propuesta de informes de coordinación	1	1

Proposatutako saio kopurua Nº de sesiones propuestas	1	1
Koordinazio eredua Modelo de coordinación	1	1
Baliabide materialak eta giza baliabideak Recursos Materiales y humanos		
Akten eredua Modelo de actas	1	0,5
Aurkezpenen egitura Estructura de las presentaciones	1	0,5
Aurkezpenen kopurua Nº de presentaciones	1	1
Bitarteko memorien egitura eta kopurua eta azken memoria Estructura y nº de memorias intermedias y memoria final	1	1
Aplikaturako kudeaketa tresnak Herramientas de gestión aplicadas	1	1
Zerbitzua emango duten teknikarien esperientzia Experiencia del personal técnico adscrito a la ejecución del servicio	10	8
GUZTIRA TOTAL		46

Jarraian eta onartutako eskaintza ekonomikoaren osotasuna egiaztatu ondoren, MODU AUTOMATIKOAN EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI dagokien gutun-azala ireki da; emaitza honakoa izan da:

A continuación, y previa comprobación de la integridad de la oferta económica admitida, se procedió a la apertura del sobre correspondiente a los CRITERIOS EVALUABLES DE FORMA AUTOMÁTICA, con el siguiente resultado:

<b>LKS</b>	
<b>IRIZPIDE AUTOMATIKOAK</b> <b>CRITERIOS AUTOMÁTICOS</b> (Urteko lizitazio oinarria, BEZ kanpo: 23.140,5 € urtean) (Tipo de licitación anual IVA excluido 23.140,5 €/ año)	<b>AURKEZTUTAKO ESKAINTZA</b> <b>OFERTA PRESENTADA</b> <b>21.938,70 €</b> (+ 4.607,13 € BEZaren % 21) (+ 4.607,13 € del 21% de I.V.A.)

Horrenbestez, Kontratazio Mahaiak honakoa proposatu du: erreferentziatzeko kontratua LKS, S. COOP izeneko sozietateari (F-20369153 IFK) adjudikatzea, lizitazio honetan onartu den eskaintza bakarra baita eta administrazio baldintzen agirian ezarritako beharkizunak betetzen baititu.

SEIGARRENA: 2016-02-15ean "LKS, S. COOP." enpresari dei egin zaio, SPKLTBren 146.4. eta 151. artikuluetan xedatutakoaren ondorioetarako. Espedientean agertzen dira erakundeak lege horietan aipatutako baldintzak betetzeari buruzko frogagiriak, hau da, honako hau:

- a) Administrazioarekin kontratatzeko legeak ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharrak egunean dituela.
- c) 1.096,94.- euroko behin betiko bermea eratuta izatea.

ZAZPIGARRENA.- 2016-02-18an, adjudikaziodunak 3/2016/1/000645 zenbakidun behin betiko bermea eratu zuen, 1.096,94 eurokoa.

Aurreko egitatezko aurrekarietara honako hauek aplikatu zaizkie

#### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

I.- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB), azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

II.- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua; haren bidez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat

Por lo tanto, la Mesa de Contratación, propuso adjudicar el contrato de referencia a la razón social "LKS, S. COOP." (C.I.F. F-20369153) al ser la única oferta admitida a esta licitación y cumplir con los requisitos establecidos en los pliegos de condiciones administrativas.

SEXTO.- En fecha 15/02/2016 se requiere a la empresa "LKS, S. COOP." a los efectos de lo dispuesto en los artículos 146.4 y 151 TRLCSP, constando en el expediente la correspondiente documentación justificativa de que la entidad referida cumple los requisitos recogidos en los citados preceptos, a saber:

- a) Cumple con las condiciones establecidas legalmente para contratar con la Administración.
- b) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.
- c) Haber constituido garantía definitiva por importe de 1.096,94.- euros.

SÉPTIMO.- El adjudicatario, con fecha 18/02/2016, constituye la garantía definitiva nº 3/2016/1/000645 por importe de 1.096,94.-euros.

A los anteriores antecedentes de hecho son de aplicación los siguientes

#### FUNDAMENTOS DE DERECHO

I.- Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (TRLCSP), aprobado por el Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre.

II.- Real Decreto 817/2009 de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector

garatzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

III.- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua; haren bidez, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren aurka egiten ez duen guztian.

IV.- Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; 781/1.986 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina, apirilaren 18koa, eta haiei lotuta aplikagarria den gainerako legeria.

V.- Proposatzen den adjudikazioa Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio kontratazio-espeditente honetan kontratazio-organo eskuduna izateagatik.

Kontratazio Zerbitzuko zinegotzi-arduradunak hala eskatuta, Tokiko Gobernu Batzordeari honako hau igorri zaio kontuan har dezan,

#### ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA: "INFORMACIÓN Y DESARROLLO, S.L." (INFYDE) izeneko sozietatea, B48236251 IFK zenbakia duena, BAZTERTUKO DA, aurkeztu duen eskaintza ez zaiolako egokitzen kontratuaren xedeari, GETXOLANeko teknikariak 2016-01-22an emandako txostenaren arabera, automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideei buruz. Hona hemen: "Infyde enpresak, bere esparru kontzeptualeko proposamenaren 1. puntuari, aurretik egindako lanaren zati bat aipatzen du (1. fasea eta 2. fasea), eta ez du kontuan hartzen 3. fasea (hau da, zehaztutako ekintza plana zehazten

Públicoan lo que no se oponga al TRLCSP.

III.- Real Decreto 1098/2001, de 12 de octubre, por el que se aprueba el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas en lo que no se oponga al TRLCSP.

IV.- Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1.986, de 18 de abril y demás legislación conexas que resulte de aplicación.

V.- Corresponde a la Junta de Gobierno Local la adjudicación que se propone por ser el órgano de contratación competente en el presente el expediente de contratación.

A instancia del Concejal Responsable del Servicio de Contratación se eleva a la consideración de la Junta de Gobierno Local la siguiente

#### PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO: EXCLUIR a la razón social "INFORMACIÓN Y DESARROLLO, S.L." (INFYDE), con CIF B48236251, al no adecuarse la oferta presentada al objeto del contrato, de conformidad con lo manifestado en el informe emitido por el Técnico de GETXOLAN de fecha 22/01/2016 sobre los criterios evaluables de forma no automática, a saber:

"La empresa Infyde en el punto número 1 de su propuesta Marco Conceptual hace referencia a parte del trabajo realizado anteriormente (Fase 1 y Fase 2) y no tiene en cuenta la Fase 3 que es donde se determina el Plan de

den fasea).

Infyde enpresaren proposamena plan operatibo batzuk zehazteko ibilbide-orri bat egitean oinarritzen da, kontuan izan gabe dagoeneko ekintza plan xehe bat dagoela.

Batez ere bi oinarri dituen proposamen bat egin du:

- 3 lan-saio egitea, ibilbide-orria definitzeko. Dagoeneko ekintza planean definitua (3. fasea).
- Proiektu enblematikoak identifikatzeko 3 saio egitea, ibilbide-orri hori definitu ondoren.

Horrenbestez, Infyderen proposamenak ez du aintzat hartzen aurretik egindako lana (ekintza plana) eta egindako lan bat berriro egitea proposatzen du.

Ez du proposatzen ekintza planaren diseinua egitea, baizik eta plan "berri" bat egitea. Beraz, ez da kontratuaren xedeari dagokion proposamena.

BIGARRENA: "LKS, S. COOP." izeneko sozietateari, F-20369153 IFK, ADJDUDIKATUKO ZAIO GETXOKO UDALERRIKO ARLO ESTRATEGIKOEN EKONOMIA-SUSTAPENEN PLANAREN BI URTEKO PLAN OPERATIBOAK PRESTATU NAHIZ EZARTZEKO ETA BI URTEKO LEHENENGO PLANA EZARTZEKO ZERBITZUA, URTEAN prezio honetan: 21.938,70 euro gehi 4.607,13 euro (BEZaren % 21).

Kontratuak URTEBETE iraungo du, administrazioko kontratua formalizatzen denetik kontatzen hasita,

Acción detallado.

La propuesta de la empresa Infyde se basa en la realización de una hoja de ruta para determinar unos planes operativos sin tener en cuenta que ya existe un Plan de Acción detallado.

Hace una propuesta basada en dos aspectos básicamente:

- Realizar 3 sesiones de trabajo para definir la hoja de ruta. Ya definida en el Plan de Acción (Fase 3).
- Realizar 3 sesiones de identificación de Proyectos emblemáticos tras definir esa hoja de ruta.

Por tanto, la propuesta de Infyde no tiene en cuenta el trabajo realizado anteriormente (Plan de Acción) y propone realizar de nuevo un trabajo ya realizado.

No propone realizar un Diseño del Plan de Acción sino que centra su principal objeto en realizar un "nuevo" Plan, por lo que no presenta una propuesta dirigida al objeto del contrato."

SEGUNDO: ADJUDICAR a la razón social "LKS, S. COOP." con CIF: F-20369153, el SERVICIO DE DISEÑO E IMPLANTACIÓN DE LOS PLANES OPERATIVOS BIANUALES DEL PLAN DE PROMOCIÓN ECONÓMICA DE LOS ÁMBITOS ESTRATÉGICOS DEL MUNICIPIO DE GETXO 2016-2020 E IMPLANTACIÓN DEL PRIMER PLAN BIANUAL, por un PRECIO ANUAL DE 21.938,70 euros más 4.607,13 euros correspondientes al 21% del I.V.A.

La duración del contrato será de UN AÑO, contado desde la formalización del contrato administrativo, siendo



eta urtebeteko luzapen bat izan ahalko du; nolana ere, kontratuak ezingo du, guztira, 2 (BI) URTE baino gehiago iraun. Nolan ere, kontratua ez da hasiko 2016ko urtarrilaren 1a baino lehen. Luzapenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 23. artikulua xedatutakoa beteko du, kontratazio organoak berariaz adostuko du eta adjudikaziodunarentzat nahitaezkoa izango da.

HIRUGARRENA: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginaren 156.1. artikuluan adierazitakoaren arabera, adjudikaziodunak Kontratazio Zerbitzuko bulegoetan agertu beharko du (Foruen kalea, 8) kontratua administrazio-agirian formalizatzeko, erabaki honen jakinarazpena jasotzen denetik hamabost laneguneko gehieneko epean.

LAUGARRENA: Ebazpen honi Getxolanen teknikariaren txostenaren kopia erantsiko zaio, 2016-01-22koa, automatikoki ebaluatu ezin diren irizpideak baloratzeari buruzkoa.

**100.- HAURRENTZAKO, NERABEENTZAKO ETA GAZTEENTZAKO AISIALDI ZERBITZUA ESLEITZEA.**

Kontratazio, Informazio Sistemak eta Kirol Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, honako erabaki-proposamen hau onartu da:

AURREKARIAK  
LEHENENGOA: Tokiko Gobernu Batzordeak 2015/12/29an hartutako

